

Z a p a t u a

Astearen azken-eguna esan nai dau **zapatuak**. Edo atsedena eguna. Jainkoak zazpigarren egunean osatu eban bere lana, au da, munduko gauza guztiak egitea, ta zazpigarren egunean atsedena artu eban, diñosku Asiera liburuak. Ez eban geiago egin, eta gero zazpigarren eguna onetsi eban. Eta orrelaxe, antxiñantxiñatik agertzen da egun au Jau-nari eskiñia, ta ebreatarrak batez be santutzat eukien egun au, zapatua.

Jainkoak berak ortaratu ebazan ebreatarrak: «Gogoratu zaite, zagoz ernai zapatua jai egiteko», diñio Urteera liburuan. Eta bere erriaren biotz barruan ondo josita egon zedin lege au, bein eta barriz go-

gorazten dautso, «utsik egin barik zapatua zaindu dagiala» esanaz.

Zapatua ospatze au barikutik asten zan. Ortarako, zapatua iragar-teko, zantzu ta ezaugarriak egiten ziran adar-oska, etxegain batetik. Lenengo turut-otsa egiten zan arratsaldeko oparigai orduan, au da, irurak inguru; eta orduan izten ziran solotetako lanak; geroago egiten zan bigarrena, ta orduan uriko lan eta arazo guztiak izten ziran. Irugarrena, eguzkia sartzean, egin oi zan, eta lanparargiak ixiotzen ziran.

Zapatua asteko, sendikoak baten ziran, eta sendi-buruak onetsi oi eban etoitz batzuk esan eta ardao-kopa bat iyuriaz. Ta orrelaxe iru jatordua egiten. Eleizan, legeak agintzen ebazan osatu oi ziran eleizkizunak, eta gero egiten ziran opari eskiñia, ta gero, beste bildots bat, urtearen berak oretuta, ardao-koparen berak egiten ebazan. Siregetan, ta far bi eukezan, goizean irakurri, ta arratsaldean beste, Liburuak zapatuak irakurri ta azalduaz. Berak, berak be auxe egin eban.

Baiña zapatuko gauzarik beinena, judutarrentzat, lanik ez egitea

zan, atsedien artzea. Zer lan ziran oneik? Eguneroko lanak. Baiña Moises'en legeak lan gitxi batzuk baiño ez ebazan galazoten: janariak egosi, batu, aratu ta segatu, suta egin, egurra batu ta olakoak. Bide luzerik be ezin eukien egin. Judutarrak, alan be, gauzak larregi estuturik, beste zer asko be lege gogorrez debekatzera eldu ziran; ortaz, galburu batzuk artzea, gaixo bat osatzea ta olakoak, eurentzat, zapatuan ezin egiñak ziran.

Jesukristo etzan etorri legea ondartzeko, bete azoteko baiño, ta zapatua be bete eban Jainkoak jarritako beste edozein lege lez. Oker

ta makur aitu ta azaltzeak, orraitioño, baztertu ebazan, zapatuko legea be nasai ta egokiago, pariseutarrak baiño gizonkiago azaldurik. Eta, ain zuzen be, onek biztu-eragiten eban arein barruan Kristo-ren kontrako ezin-ikusitaki ta gorrotoa.

Bein amazortzi urtez makurturik aurkitzen zan emakumea osatu ebalako, marmarka eukazan pariseutarrak, Kristo-ren «Azalutsok!» asko esan nai dau. Ez gaitezkan gu be lege azalean gelditu. Goazan barruraino, mamiña be miazkatzeraioño.

A. O.

